


# **RASFF TXOSTENA**

## **ALERTAK eta JAKINARAZPENAK** **ELIKAGAIAK** **2012ko URTEKO TXOSTENA**


**Jakinarazpenen kategorizazioa**  
**Alerta eta jakinarazpenen kopurura**  
**Antzemandako arriskuen jatorria**  
**Antzemandako arriskuak**  
**Azken urteen arteko konparazioa**

## JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2012ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiari buruzko 2801 jakinarazpen izan dira. Horietatik **462 alertak** izan dira (%16), **869 informazio-jakinazpenak** (%31) eta **1476 mugan egin diren ukapenak** (%53).




Hau izan da urteko eboluzioa lauhilekoka:



## ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURURA


**2012an** Alerta Azkarra Sistemaren (RASFF) bidez **2801 alerta eta informazio-jakinazpen** jaso dira.




### ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, aipatu behar da Asiak (% 47) eta Europak (% 31) eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Afrikako jakinarazpen kopuruak, berriz, zertxobait egin du behera, 2011. urtearekin erkatuz gero. Gainerako herrialdeetako jakinarazpenen kopuruak aurreko urteetako antzekoak izan dira.

Honako hauek izan dira urteko batez bestekoak:





Hauze izan da arriskuen jatorriaren bilakaera lauhilekoka:



### ... ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Aurreko urteetan bezalaxe, kutsadura biologiak eragin ditu jakinarazpen gehien; baina, eutsi egin diote iazko mailari. Aurten, mikotoxinak izan dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea.


Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:



### ... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


**MIKO TOXINEK** eragindako kutsadurari dagokionez, kasu gehienak (**%80**) **Aflatoxinek** eragin dituzte. Eta, horrelakoetan, kakahueteek kutsadura kasuen **%48** eragin dute. Kakahuete gehienak **Asiakoak** izan, **%65**ean.

Hona hemen aflatoxinek eragindako jakinarazpenek 2012. urtean izan duten bilakaera:



**KUTSADURA BIOLOGIKO**Ari dagokionez, jakinarazpenen **%21** izan dira, eta talde honetan **Salmonella sp.** nabarmendu behar dugu, kutsadura biologikoen **%49** eragin baitu (urteko batez bestekoa).


Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten igoera:



Badira Salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* eta *S.enteritidis*); baina, horiez gain, badira bestelako Salmonella espezie batzuk. Horien artean **salmonella exotikoak** nabarmendu behar ditugu (**%88**).


Produktu kaltetuei dagokienez, **belar aromatiko, haragi produktu, arrain eta barazkiek** eragi dituzte, eta denek izan dituzte antzeko portzentajeak.

**KUTSADURA KIMIKO**Ari dagokionez, jakinarazpenen **%10** izan da. **Elikagaietako gehigarriek** alerten eta jakinarazpenen **%48**a eragin dituzte. Talde horren barruan gozokiak, edariak, espezieak, ozpinkiak eta elikagai gehigarriak izan ditugu, eta denek izan dituzte antzeko portzentajeak.




**... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK**

**HONDAKIN**ak aipatu behar dira ere, hala pestizidak nola medikamentuak, bostagarren urtez jarraian igo direla, azken urtean, 2011ko %17etik 2012ko %23ra pasatuz. Batezbeste **pestiziden hondakinak %70a** dira eta **medikamentuen hondakinak %30a**.



**AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA**

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak aldatutu egin dira urtetik urtera. Hainbat aldaketa gorabehera, oro har antzeko joerak antzeman dira.



Gehien antzeman diren kutsadura eragileei erreparatzen badiegu, konturatuko gara, aflatoxinen alerta kopuruak behera egin duela, eta *Salmonella sp.*renak eta elikagaietako gehigarrienak, berriz, gora.

